

2015eko R.M. Azkue Sariak

Euskaltzaindiak BBK Fundazioaren babespean eratzen dituen R.M. Azkue Literatura Sariak esangura eta balio trinkoak dituzte guztiontzat.

Euskararen Akademiak, hizkuntza bere gordinean ikertu eta aztertzea bakarrik ez du bere jomuga. “Ele ederra” ere bere asmoen artean du. Gramatika, lexikografia, dialektologia, onomastika iker eremuak ditu Akademiak, baina hauen balioa erkindua legoke, hitz ederren bidez leundua eta gozatua ez bagendu. Literatura on batek indartu eta sendotuko ez balu.

R.M. Azkue saria, gure idazle kaskondu, berdingo eta gazteak literatura sortzera eta lantzera bultzatzeko sortu zen., literaturgintzan hutsune nabaria zegoen adin-tarte bati erantzuteko. Gaztetan artez datorren landarea iristen da arbola sendo eta tantai izatera.

Euskaltzaindia sinestuta dago, gaur hemen eta urtero saritzen eta argitaratzen ditugun lan hauen sortzaileak, guztiak ez bada batzu-batzuk, idazle on eta trebe izatera helduko direla.

BBK Fundazioak aspaldiko urteetatik lagundu eta babesten gaitu, literatura sorkuntzaren alde daramagun ahalegin eta lehia honetan. Aurrerantzean ere bere berotasuna ondoan nahi genuke.

Amaitzeko, zorionak gaur saridun gertatu zareten neska guztioi. Halaxe “ekin eta jarrai” aurrerantzean ere.

Bilbon, 2016ko martxoaren 15ean
Adolfo Arejita